Lan-eskaintzen erregistroa 2024ko maiatzean

• ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan 1.427 eskaintza erregistratu dira 2024ko maiatzean, apirilean baino 333 gehiago eta 2023ko maiatzean baino 618 gutxiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen lurralde historikoari dagokionez, 2024ko maiatzean 242 eskaintza erregistratu dira Araban, 531 Gipuzkoan eta 654 Bizkaian. Eskaintzen % 17 Arabako UAG-etan erregistratu dira, % 37,2 Gipuzkoan eta % 45,8 Bizkaian.

Eskaintzaren Lurralde Historikoa



Araban, hilabete honetan, eskaintzek % 29,4 egin dute gora (55 eskaintza gehiago); Gipuzkoan, % 24,5 igo dira (105 eskaintza gehiago); eta azkenik, Bizkaian, eskaintzek % 36 egin dute gora (173 eskaintza gehiago).

Iazko hilabete beraren aldean, Araban bakarrik igo dira eskaintzak, % 4,8 (11 eskaintza gehiago); Bizkaian, aldiz, 325 eskaintza gutxiago erregistratu dira (- % 33,2); azkenik, Gipuzkoan jaitsi dira gehien eskaintzak balio erlatiboetan, % 36,4 murriztu baitira (304 eskaintza gutxiago).

• ESKAINTZAREN OKUPAZIOA

Okupazio-profilei dagokienez, EAEn eskaintza gehien erregistratu dituen profila zerbitzuena da: 289 eskaintza eta eskaintza guztien % 20,3. Ondoren, teknikari zientifikoen profila dator, 259 eskaintzarekin eta % 18,2ko pisuarekin. Laguntza-teknikarien, kualifikaziorik gabekoen eta industriaren okupazio-profilek ere garrantzi handia dute erregistratutako eskaintzei dagokienez, erregistratutako eskaintzen bolumenaren ehunekoak % 16,6, % 15,4 eta % 14,1 baitira, hurrenez hurren. Eskaintza gutxien erregistratu dituzten profilak lehen sektorekoak eta zuzendaritzakoak dira, 12 eta 7 eskaintzarekin, hurrenez hurren.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, zuzendarien eskaintzak (-4 eskaintza, -% 36,6) eta lehen sektoreko eskaintzak (-1 eskaintza, -% 7,7ko jaitsiera) baino ez dira jaitsi. Aitzitik, eskaintza-igoera handiena, bai maila absolutuan bai erlatiboan, industria-profilean eman da, 84 eskaintza gehiagorekin eta % 71,8ko igoera portzentualarekin.

Urte arteko saldoari dagokionez, okupazio guztietan egin dute behera eskaintzek, ez-kualifikatuen (10 eskaintza gehiago, + % 4,8) eta lehen sektoreko profiletan izan ezik (+1, + % 9,1). Jaitsierarik handiena, balio absolutuetan, teknikari zientifikoen profilean gertatu da, 192 eskaintza gutxiagorekin eta % 42,6ko jaitsierarekin; balio erlatiboetan, beherakada handiena zuzendarien eskaintzetan gertatu da, % 73,1 murriztu baitira (19 eskaintza gutxiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako eskaintzen % 38,8 mugagabeak dira, % 60,8 aldi baterakoak eta gainerako % 0,4 merkataritzakoak. Kontratu mugagabeen eskaintzen ehunekoa altua da serie historikoarekin alderatuta; hala ere, hilabete honetan ia 7 puntu jaitsi da iazko maiatzarekin alderatuta, eta 5 puntu aurtengo apirilarekin alderatuta. Datu horiek lan-erreformaren ondoren eskaintza mugagabeen presentzia handiagoa izateko joerari jarraitzen diote. Eskaintza mugagabeak 553 izan dira, aurreko hilean baino 79 gehiago (% 16,7 gehiago). Aldi baterako eskaintzak 256 izan dira, 838 guztira; termino erlatiboetan igoera % 41,8koa izan da. Azkenik, merkataritza-izaerako 6 eskaintza izan dira maiatzean, apirilean baino 2 gutxiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 380 gutxiago izan dira (% 40,7 jaitsi dira); aldi baterako kontratuen eskaintzak % 20 murriztu dira, 217 eskaintza gutxiagorekin. Azkenik, merkataritzako 21 eskaintza gutxiago erregistratu dira urteko erreferentzian.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2024ko maiatzean erregistratutako eskaintzen % 76,8k 0-6 hilabeteko esperientzia behar dute; 1.096 eskaintza guztira. Erregistratutako eskaintzen % 13,2k, 189 guztira, 6-12 hilabeteko esperientzia eskatzen dute. Ehuneko txikiagoak dituzte esperientzia handiagoa eskatzen duten eskaintzek, hala nola 3 eta 5 urte bitarteko aldiak, % 1,6ko pisuarekin (23 eskaintza) eta 5 urte baino gehiago behar dituztenek; 4 eskaintza eta % 0,3ko pisuarekin.



Hileko bilakaerari dagokionez, behera egin dute esperientzia handiagoa behar duten eskaintzek, hala nola 3 eta 5 urte bitartean behar dituztenek (-2 eskaintza) eta 5 urte baino gehiago behar dituztenek (-6). Balio absolutuetan zein erlatiboetan hazkunderik handiena 6 hilabete baino gutxiago behar dituzten eskaintzetan izan da, 272 eskaintza gehiagorekin eta % 33ko hazkundearekin.

Urteko bilakaerari dagokionez, jaitsi egin dira eskaintzak esperientzia-tarte guztietan. Balio absolutuetan, 0 eta 6 hilabete bitarteko esperientzia eskatzen duten eskaintzen beherakada nabarmentzen da, 335 eskaintzatan jaitsi baitira (-%23,4 beherakada); balio erlatiboetan, 1 eta 3 urte bitarteko lan esperientzia behar duten eskaintzen beherakada nabarmentzen da, % 56,9 murriztu baitira (-152 eskaintza).

Lan-eskaintzen erregistroa 2024ko maiatzean

Maiatza honetan, erregistratutako lan-eskaintzek, batez beste, 8 hilabeteko esperientzia behar zuten, apirilean bezala.

• LANALDI MOTA

Ezer baino lehen, aipatu behar da lan-eskaintza guztiek ez dutela zehazten eskaintzak erregistratzeko orduan egin beharreko lanaldia, eskaintzen % 17,5ek bakarrik zehazten baitute lanaldia, aurreko hilean baino ia puntu 1 gehiago (1.427 eskaintzatik 287 bakarrik). 287 eskaintza horietatik 249 lanaldi osokoak dira, eta gainerako 38ak lanaldi partzialekoak.



Bilakaerari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 67 puntu igo dira apirilaren aldean, hau da, % 36,8. Lanaldi partzialeko 38 eskaintza gehiago izan dira maiatzean, eta igoera erlatiboa % 58,3koa izan da.

Aurreko urteko hil beraren aldean, lanaldi osoko eskaintzak 54 gutxiago izan dira (% 17,8 gutxiago). Lanaldi partzialeko 14 eskaintza gutxiago izan dira maiatzean, eta beherakada erlatiboa % 26,9koa izan da.

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 26 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 19 gehiago eta aurreko urtean baino 109 gutxiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 80,5ek ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.427 eskaintzetatik 278k soilik zehaztu dute.



278 eskaintza horietatik 108k LHko ikasketak behar zituzten, eta ikasketa-maila minimo hori da gehien eskatu dena; ondoren, unibertsitate-ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak datoz, 87 eskaintza erregistratu baitziren maiatzean. Horien atzetik daude derrigorrezko ikasketen eta batxilerreko profilak, 63 eta 20 eskaintza erregistratu baitituzte, hurrenez hurren.

Hil arteko erlazioan, eskaintzak profil guztietan igo dira, batxilergoetan izan ezik, 2 gutxiago izan baitira (-%9,1). Igoerarik handiena, bai balio absolutu zein erlatiboetan, derrigorrezko ikasketen eskaintzetan gertatu da, 14 eskaintza gehiagorekin eta % 28,6ko hazkundearekin

2023ko maiatzarekin alderatuta, igo egin dira derrigorrezko ikasketak behar dituzten eskaintzak (+24, % 61,5eko igoera) eta unibertsitate-ikasketak behar dituztenak (+6 eskaintza, + % 7,4). Aitzitik, behera egin dute LH eskatzen duten eskaintzek (-44 eskaintza, -% 29) eta batxilergoa eskatzen dutenek (1 eskaintza gutxiago).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratu diren eskaintzen bolumenagatik gehien nabarmentzen den jarduera merkataritza da, % 14,6ko pisuarekin (208 eskaintza). Jarraian, manufaktura-industriaren eskaintzak datoz, 198 eskaintzarekin, hileko eskaintza guztien % 13,9.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, batez ere merkataritzako eskaintzek izan duten igoera nabarmendu behar da, 65 eskaintza gehiago izan baitituzte (% 45,5 gehiago); jarraian, manufakturako industria eskaintzak daude 61 eskaintza gehiagorekin (+%44,5). Aldiz, gehien murriztu diren eskaintzak lehen sektorekoak dira, 11 eskaintza gutxiago eta % 84,6ko murrizketa erlatiboarekin.

Urte arteko saldoari dagokionez, jarduera gehienetan eskaintzak jaitsi egin dira. Zenbaki absolutuetan nabarmentzekoa da jarduera administratiboetan izandako jaitsiera, 165 eskaintza gutxiagorekin (% 53,9ko murrizketa), eta ondoren industrian izandako jaitsiera, 120 eskaintza gutxiagorekin (%-37,7). Aitzitik, igoerarik handiena administrazio publikoan izan da, 60 eskaintza gehiago eta % 74,1eko igoerarekin